

*Prentsa oharra
Kortrijk, 2015eko urriak 16*

IRIZAR, begirada produktu integraletan, teknologian eta iraunkortasunean duen marka

Irizar autobusen eta autokarren fabrikazioan mundu mailako erreferente da eta Busworld 2015 Nazioarteko Azokan izango da 1.000 metro koadro baino gehiagoko estandarekin. Bere etorkizunerako strategiaren zabalkunderako agertoki bihurtuko da eta baita azken belaunaldiko Irizar i8 autokarraren aurkezpen ofizialerako ere. Gama altuko autokar bat Irizar taldeak garatutako irtenbide teknologiko ugariren emaitza da. Eta markaren esperientzian eta berritzeko grinean oinarritutako estetika zainduarena ere bai.

Modelo berriaren bi unitatez gain estandean Irizar i6a eta Taldearen hiriko autobus %100 elektrikoa ikusi ahal izango dira, Irizar i2e.

Azokako sarrera nagusian Irizar i4 bat ikusi ahal izango da eta berrikuntza gisa, baita Irizar i3le berria ere, bertsio integralean egindako lehen low entry autobusa, kasu honetan DAF Biodiesel motorrarekin eta Europako herrialdeetan hiri arteko zerbitzua ematera zuzendua.

Lehen aldiz, aurkeztuko diren autokar eta autobus guztiak integralak dira eta Taldearen aurrerapen teknologiko guztiak dituzte hainbat arlotan: segurtasuna, eraginkortasuna, energia biltegiatzea, karga, floten kudeaketa eta entretenimendua.

Irizar Taldea luxuzko autokarren fabrikatzaile gisa sendotu egingo da modelo honekin. Gure markak arima artistiko eta tekniko islatzen ditu eta erdigunean jartzen ditu diseinuaren ikusgarritasuna, teknologia eta iraunkortasuna. Gainera, prestigioa ematen die jabe berriei eta izugarritzko erosotasuna eskaintzen die gidariari, gidari eta bidaiariei eta esperientzia ahaztezin zirrargarria bermatzen die.

Azoka honen aitzakian Irizarrek elektromugikortasunean marka liderra izateko erabaki irmoa agertzen du eta Taldeak egin duen jauzi teknologiko handia erakusten du. Horretarako, gai honi eskainitako gunea bat izango du.

Kutsu tradizionalagoko gaiak ere lantzen ditu, hala nola sistemen integrazioa, eta irmo babesten du Taldea etorkizuneko Irizar markako autokar integralen eta elektrikoen garapen berrietan.

Gaur egun taldearen I+G zentroa den Creatioren ikerketa ildoak honako hauek dira:

- Propulzioa
- Elektronika: Hardwarea eta softwarea
- Energia eta komunikazio estrategiak, V2V (vehicle to vehicle) eta V2I (vehicle to infrastructures)
- Elektromugikortasuna
 - Hirietarako autobus elektrikoa
 - BRT (Bus Rapid Transit)

- Elektromugikortasunerako sistemak eta osagaiak Alderantzikagailuak, bihurgailuak, DCIDC, Junction Box
 - Kotxetegiko karga estazioa
 - Linea burualdeko egokierako karga estazioa
 - Energia sortu eta biltegitzeko sistemak
 - Kontrol unitate elektronikoak (ECU)
- IST sistemak (irtenbide inteligenteak garraiorako) eta konektatutako ibilgailurako irtenbideak

Irizar i8a.

Irizar i8a luxuzko ibilgailua da ibilbide luzeetarako, zerbitzu berezietarako eta beste erabilera berezi batzuetarako eta merkatu teknologia aurreratuena du. Markaren ikono bihurtuko da eta PBa ordezkatu du, hobekuntza nabarmenekin eta abangoardiako teknologiak gehituta.

Kanpoko diseinua

Arreta berezi jarri zaio diseinuari eta Irizar i8aren azalean Irizar markaren identitatea eta nortasuna nabarmentzea lortu da. Aipagarria da autokarraren alboetako lerro nabarmena, zehar lerro ausarta osatzen duena eta zerikusi handiagoa duena turismo modernoenen diseinuarekin autokar konbentzionalenekin baino.

Aurrealdean V formako altzairu herdoilgaitzeko pieza erakargarria nabarmentzen da, full LED faro berri eta lirainen artean. Atzealdea ere benetan erakargarria da. Itxura oldarkorra mantendu egiten du eta indartu egiten da V formako bereizgarriarekin

Horrela, Irizar i8a konfiantza, artea eta dotoretasuna transmititzen dituen multzo boteretsu bihurtzen da.

Barneko diseinua

Irizar i8an bidaiatzea esperientzia berdingabe bihurtzen da. Ibilgailu honen barnealdeko edozein puntutara begiratzean kanpoalde ikusgarriak sortutako sentipenak areagotzen ditu.

Formen ausardia barnealdean ere antzematen da. Xehetasun guztiak kontu handiz zaindu dira (22"ko bereizmen handiko monitoreak, LED argiak lurrean eta sabaian, etengailu kapazitiboak...) eta horrek erosotasun osoa bermatzen die bidaiariei.

Eserleku berriek Irizar i8aren estetika berrituari eusten diote. Dotorea izatea saihestu ezin den arren lehentasuna beste kontzeptu batzuek izan dute, esaterako, ergonomiak, erosotasunak, funtzionalitateak eta egokitzeko gaitasunak.

Gidaria protagonista

Gidaria da protagonista. Aginte-mahaia bereziki eroso da eta gidariaren gogobetetzea kontuan izanda diseinatu da. Nabigazioko tresnak eta pantailak estrategikoki kokatu dira haiek irakurtzea errazagoa izan dadin eta kontrol guztiak kokatzeko irizpidea ergonomia izan da, erraz eta intuitiboki erabili ahal izateko. Sistema guztiak erabiltzeko modua nabarmen hobetu da aginte birakari batekin (joystick), menuetara sartzeko errazak diren botoiekin eta koloretako ukipen-pantaila batekin.

MMI kotsola zentralaren funtzionaltasuna nabarmentzen da, sarbide errazeko menu batekin (kamarak, GPS, media, telefonoa, klima...) sistema elektronikoko guztiak barne hartzen baititu.

Biharko teknologia

Irizarrek sortutako teknologiak zirkulazioak, lurrazalak eta errepideen izaerak sortutako erronkak gainditzera bideratuta daude. Baina, era berean, ongizatea eta segurtasuna emateko ere pentsatuta daude, bidaiatzearen plazera eta gozamenarekin lotuta.

Honako hauek nabarmentzen dira: kanpoko nahiz kanpoko LED argiztapena, arkitektura multiplexatua eta CAN komunikazioa, autokarraren elektronika osoa artikulatzen duena, diagnosi zerbitzuak eta datuak hartzea ahalbidetzen duena OBD konektorearekin eta sistemei inteligentzia eransten diena. Nabarmentzekoak dira, era berean, gidatzen laguntzeko AEB-LDW sistemak, ukipen-pantailaren eta HMI kotsolaren bidez txertatuak. Haietatik kudeatzen dira entretenimendu eta konfort sistemak.

Segurua, fidagarria eta eraginkorra

Errepideko arazoak saihestea ezinbestekoa da IRIZAR ibilgailuentzat. Markaren gainerako ibilgailu guztiek bezala Irizar i8ak ere R.66.O2 segurtasun araudia betetzen du eta sistema modernoak ditu segurtasun aktiboan, egonkortasuna bermatzeko eta aurreikusi gabeko egoeretan arriskuak minimizatzen.

Muturreko egoeretan, errepidean gainerakoen jokabidea aurreikusi ezin denean, lasagarria da jakitea Irizar i8aren egitura iraultzeko eta pare pare talka egiteko erresistentzia aintzat hartuta diseinatu dela, pisuen banaketa optimizatuta.

Parametro zorrotzenak kontuan harturik sortua Irizar i8an ibilgailu sendo, arin, isil eta fidagarria da. Neke azeleratuko eta fidagarritasuneko saiakuntza gogorak egin zaizkio, aplikatutako ikerketa instituturik ospetsuenetako batean, eta emaitzak bikainak izan dira.

Diseinuan, materialetan, osagaietan eta produkzio prozesuetan teknologiarik aurreratuenak sartzeaz gain, Irizar i8ak kalitate goreneko akaberak dauzka. i8a autobus seguru eta fidagarri bihurtzen du horrek.

Errentagarritasun handiena

Irizarrek ahalegin berezia egin du kontsumoak gutxitzeko. DAF EURO VI motor belaunaldi berriak

barne-marruskadura gutxiago du, erregaia sartzeko sistema aldatuta eta beste hobekuntza batzuk ere bai eta horrek guztiak kontsumoa nabarmen murrizten du.

Hainbat ezaugarri Irizar i8a segmentuko lider bihurtzen dute kontsumoari dagokionez: 12 abiaduratako abiadura-kaxa automatizatuaren softwarea, marruskadura gutxiagoko aerodinamika aurrealdea estuagoa delako eta aire gutxiago sartzen zaiolako, ordeko gurpila karenatua eta pisu gutxiago erresistentzia handiko altzairuak eta aleaziozko hagunak erabiltzeagatik.

Errentagarritasunean eragina duten beste faktore batzuk konpontzeko eta mantentzeko kostuak dira. Arlo honetan zerbitzu tartea luzatu egin dira. 100.000 km arte zirkulatu daiteke olio aldatu gabe eta kate zinematikoko eta karrozeriako aldagaien prezioak doitu dira.

Horri gehitzen badiogu zerbitzu sarea hedatzen ari dela Irizarrek homologatutako tailerrak autobusek operatzen duten lekuetatik ahalik eta gertuen egoteko, Irizar i8aren hondar-balioa handia izango dela eta, beraz, inbertsioaren itzulera erakargarria izango dela bezeroentzat, edota lehenetsien artean CO2 isuriak gutxitzea dagoela, zalantzarik gabe baieztatu daiteke Irizar i8aren alde egitea aukera onena dela.

Irizar i2e hiriko autobusa

Hirietako autobusei dagokionez, Irizar lehen aldiz joango da aurtengo Busworldera hiriko autobus % 100 elektrikoarekin, Irizar i2e-a.

Irizarrek hirietako elektromugikortasunaren merkatuan liderra da eta kontzeptu horiekin lotutako teknologia berrietan abangoardian kokatuta dago. Bide horretan garraio garbiak eta irisgarriak erabiltzea sustatzen du, ingurumenaren, ongizatearen eta pertsonen osasunaren alde egiten dutenak eta hirigune hobeak sortuko dituztenak.

Kutsadura akustikoa murriztearen alde egiten du, kostuak gutxituko dituzten kontsumo baxuen alde eta zero igorpeneko ibilgailuen alde. Hau Irizar Taldearen etorkizuneko lerro estrategiko berria da.

Dagoeneko errealitatea den hiriko autobusaz gainera, Taldea beste proiektu ambiziozko batzuetan murgilduta dago, eta jardura lerro berri hau gauzatzeko 2016 bukaerarako martxan egotea aurreikusten den lantegia eraikitzen ari da. Inbertsioa 60 milioi eurokoa izango da.

Martxan dauden proiektuek hirietako elektromugikortasun beharrak osatuko lituzkete, eta baita haien osagai eta sistema nagusiak ere: ibilgailuak, karga sistemak, energia biltegitzeko sistemak eta abar.

Irizar i2e Irizar Taldeak garatutako lehen hiriko autobusa da, zero emisiodun ibilgailu elektrikoak, eta osa harrera ona izan du merkatuan. Gainera, Espainian urteko autobus aukeratu dute. Donostian eta Bartzelonan dabilzan unitateez gain, beste bi Londresen dabilta eta lehen unitateak fabrikatzen ari gara hainbat bezeroentzat, tartean Marseillarako sei autobus.

Irizar i2e hirietako operadoreentzat hiriko etorkizuneko autobus gisa aurkezten da. Azken teknologiak ditu eta erreferente da iraunkortasunean, ekoefizientzian eta errentagarritasunean hiri barruan mugitzeko. Hiri modernoetako garraioaren gaur egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuten die. Autobus elektriko bakoitzeko urteko CO2 igorpenak 318,28Tn tonatan murrizten dira, eta 33.000 litro erregai aurrezten dira. Gainera erregai fosilen prezioen igoeraren aurrean independentzia ematen du.

Irizar Taldearen azken berriak

Irizar Taldean ikerketa eta garapenean murgilduta jarraitzen dugu, teknologia txertatzen eta produktu integralak hobetzen (beste urte batez nabarmen gehituko dira). 2014an 120 autokar integral fabrikatu genituen, aurtan 205 baino gehiago izango dira eta datorren urterako hazteko aurreikuspenak ditugu.

Ormaiztegiko lantegi nagusiak hazkunde aipagarria izango du eta Taldearen aurrerapenaren gidaria da. Aurtan berriz hazkundera izango da lantegi nagusi honetatik zerbitzatzen diren merkatu guztietan.

Marokoko lantegiak hartu duen protagonismoa ere nabarmentzekoa da, lantegi nagusiaren osagarri gisa Europako merkatuetarako autokarrak fabrikatzen laguntzen baitu.

Aurreikusten dugu Estatu Batuak garrantzi handiko merkatua izango direla gure markarentzat, eta lehen fase batean Ormaiztegin ari gara fabrikatzen merkatu hartarako autokarrak.

Europako hainbat hiritarako autobus elektrikoak fabrikatzen jarraitzen dugu eta elektromugikortasuneko I+Gari lotutako hainbat programatan murgilduta gaude. Programa horiek datozen urteetan hazkunde handia ekarriko digutela espero dugu negozio lerro honetan.

Taldeko gainerako enpresak ere hazi egingo dira aurtan eta euren merkatuak dibertsifikatuko dituzte.

Laburbilduz, aurreikusten dugu aurtan ere hazi egingo garela eta 550 milioi euro baino gehiagoko fakturazio agregatua izango dugula, horietatik % 83 esportazio merkatuetakoa.

Autokarren fabrikazioari dagokionez 3.000 autokar "Premium" fabrikatuko ditugu, horietatik 1.200, % 40, Ormaiztegiko lantegian.

Fitxa teknikoak